

**Xabier Martin**

DONOSTIA— Aho batez izendatu dute Maria Eugenia Arrizabalaga (Zumaia, Gipuzkoa, 1967) Gipuzko Buru Batzarreko lehendakari. Haren ustez, Madrilen dago beste estatus bat lortzeko oztoporik handiena: «Beti egon da han».

**Kohesio mezua igorri duzue Gipuzkoan, baina bihurgune batzuk izan dira prozesuan, ezta?** Prozesua luzea da, eta Gipuzkoan eta beste lurraldeetan ere, harabotsa sortu da hedabideetan. Kasik gehiago jakin dugu zer gertatzen ari zen komunikabideak ikusita eta irakurrita, bestela baino. Kanpoko esamesek eta espekulazioek prozesua baldintzatu dezakete-eta neurri batean.

**Filtrazioek ere bai, ezta?**

Filtrazioek ere bai, seguruena.

**Lasaitu zintuen Donostiako alkate Goiak uko egin izanak bigarren itzulian egoteari?**

Irakurtzen zenaren arabera, ematen zuen Gipuzkoan bazela arazo bat, eta ez da halakorik egon: kezkarik gabe eta erabat natural bizi izan dut gertatutako guztia.

**Egibarren lekukoa hartu duzu. Jarraitutasuna ordezkatzan duzula idatzi da.**

Jarraitutasuna? Bai, abertzaletasunean. Egibar abertzalea da, neu ere bai, eta zuzendaritza osoa ere bai; bestela zer egingo genuke horrelako alderdi batean?

**EAJko gidari batzuek esan dute EBBko buru Ortuzarrek «irabazi» egin duela jarraitu nahi duen erabakitzea. Ados?**

Ortuzarrek berak esan du prozesua hasiko den egunean adieraziko duela zer asmo duen. Gero, alderdikideek onetsi beharko dute, edo beste aukera baten alde egin. Erreleboa ez da lege bat, edonola ere: gerta daiteke ala ez.

**EAJk berritasun mezua helaraz dezake buruzagi nagusia aldatu gabe?**

EAJk lurralde buruzagitzak eta Aberri Batzarra berritu ditu jada. Ez du ezer erakutsi beharrik. Baina ematen du guri gehiago

# «Erabakitzekeo eskubidea gradualismo baten barruko ariketa gisa ulertzen dugu»

**MARIA EUGENIA ARRIZABALAGA**

*EAJko Gipuzko Buru Batzarreko presidentea*

Joseba Egibar buru historikoaren albokoa izan da Arrizabalaga, eta hura da orain EAJren ildo subiranistaren zaintzaile; «natural» bizi izan du bere izendapena.

eskatzen digutela. Beste batzuek esaten dute: 'berritu gara', eta nahikoa da, bukatu da pelikula.

**PSEko buru Eneko Anduezen adierazpen gogorak gorabehera, Madrilen dago beste estatus bat lortzeko benetako oztopoa?**

Korapiloa beti egon da Madril. Ibarretxeren garaian ere bai. 45 urteren ondoren, Gernikako Estatutua ez da bete. Orain, Sanchezek, bere egoera politikoak behartuta, agindu digu beteko duela 2025erako, Gizarte Segurantzaren eta guzti. Eta nik eszeptizismoz aztertzen dut egoera. Egungo eskemak ez du bermatzen gure autogobernua benetakoa izatea; horregatik behar da estatus berri bat.

**EAJk, EH Bilduk eta PSE-EEk akordio bat lortuko ote dute?**

Borondate politikoa behar da, eta, zilegitasun demokratikoa badugula, gero Madril harrapatu behar dugu urrats batzuk egiteko prest. Anduezak gauzak esaten ditu etengabe, eta ni ez nau harritzen, PSEn beti izan baitira erabakitzekeo eskubidearen aurkakoak. Hala eta guztiz ere, gutxieneko batzuk lortu behar ditugu. EH Bildurekin bai, jakina, logikak agintzen baitu. EH Bilduren barruan bilakaera bat egon da. PSErekin gutxieneko onargarri batzuk lortuko bagenitu, errazagoa litzateke Madrilgo mugarrira gainditzea. Baina zilegitasun demokratikoa gehiengoak ematen du, nahiz eta horrek ez duen segurantzarik ematen Madrilgo oztopoa gainditzeko. Hala ere, inork ez dauka beto eskubiderik.

**Gutxiengo onargarrien artean dago nazio aitortza, ezta?**

Nazio aitortza lortuko bagenu, pauso oso garrantzitsua egingo genuke, baina ez PSEren ahots batzuek aipatu duten ikuspegi literario batetik, ikuspegi politiko batetik baizik, erabakitzekeo eskubidearekin batera alegia.

**Erabakitzekeo eskubidea eufemismo bat da autodeterminazio eskubidea esateko, edo beste gauza bat da?**

Autodeterminazio eskubidea da. Erabakitzekeo eskubidea gradualismo baten barruan egin daitekeen ariketa gisa ulertzen dugu. 1979an, herritarrek Gernikako Estatutua ontzat eman zutenean, erabakitzekeo eskubidearen ariketa gauzatu zen. Xedapen gehigarrian jasoa dago ez diegula uko



**Bizkaie!**

Bizkaiera hutsean agerkari bakarra interneten!

[www.bizkaie.biz](http://www.bizkaie.biz)



Arbidea, 1 (Txurdinaga). 48004 Bilbao  
Telefona: 944162393





ANDONI CANELLADA / FOKU



«Egungo eskemak ez du bermatzen gure autogobernua benetakoa izatea; horregatik behar da estatus berri bat»

«Nafarroan eta Madrilen dena da 'bai, bai, bai' EH Bildurentzat, eta, hemen, ezezko borobila jaso dugu urte askoan»

egiten herri gisa dauzkagun esku-bideei. Atea zabalik dago. Egungo estatutua gaudituko lukeen beste estatus bat lortuko bagenu, hori ere erabakitze eskubideari lotutako ariketa demokratiko bat litzateke, graduala, horrek ez bairuke adieraziko honaino iritsi garelara eta kito. Beste pauso garrantzitsu bat emango genuke geure buruaren jabe izateko bide luze eta malkartsu honetan, eta, etorkizunean, gure ondorengoak beren erabakien jabe lirateke. Baina ematen diren pausok edukiz beterik egon behar dute: posibilitismoa bai, gradualismoa bai, baina herri duintasuna gordez.

**PSEko buruak ez du nahi euskal selekzioak lehia ofizialetan aritzea. Horretarako modua eman-go luke aitortza horrek?**

Askotan esaten dute kirola eta politika ez direla nahastu behar, baina falazia da hori esatea. Badakite euskal selekzioak ofizialki lehiatzeak eragin zuzena duela jende askorengan, atxikimendu batzuk sortzen direlako. Aitortza horrek lehia ofizialetan aritzea ekarri beharko luke? Bai, baina ikusteko dago hori. Saiatu, saiatuko gara.

**Euskararen aurkako oldarraldi judiziala ere ukatu egiten du PSEk; ez al da zama handia bihurtu EAJrentzat, mezu aber-**

**tzalea igortzeko helburuari begira?**

Programa akordio jakinekin gobernatzen ari gara, eta itun hori ona da herriarentzat. Sarritan esaten dute EAJren abertzale-tasuna baldintzatzeko daudela gobernuetan; hori da haien helburuetako bat, eta baldintzatuak ez izatea da gurea. Egoera hau da: bi adierazpen abertzaleen artean konfrontazioa izan da lege, elkarlana baino gehiago; ez da beharrezkoa historian atzera egitea hori ulertzeko, denok dugu buruan zeri buruz ari garen, nahiz eta azken boladan itxurakeria taktizista asko ikusten ditugun.

**Bi aldeek jotzen dute taktizismoa?**

Esango nuke EH Bildu gehiago ari dela horretan gurekin. Haiiek beste gauza bat esango dizute. Zaila zaigu hegemoniaren lehia honetan —haiei entzundakoa da hori— konponbide sakonak lortzea gaur-gaurkoz; akaso, egunen batean lortuko dugu. Ikuspegi nazionaletik, nahiko erraz jartzen gara ados, baina, gero, gainontzeko sektore politika guztiak daude, eta hor ez dute akordiorik nahi, nahiz eta orain erdibideko ubide horren bila dabilozan, EAJren antza proiektatzen.

**Ustezko kopia hori Gipuzkoan gailendu da.**

Gipuzkoan, gauzak ez dira behin ere errazak izan EAJrentzat. Azken 35 urteotan, denetarik egon da, denentzat, beherakadak eta igoerak. Uste dut hurrengo hauteskundeak irabazi egingo ditugula, etxean geratu diren asko bozkatzera eramanda.

**Abstentzioa alde batera utzita, ez da izan EH Bildurako boto transferentziarik?**

Transferentziak beti izaten dira, batetik bestera.

**Transferentzia nabarmena.**

Batzuk oso iaioak dira bitariko estrategiak martxan jartzen, aldi batean. Bozeramaile ofizialak era batera aritzen dira, baina, gero, azpikontratatu egiten dituzte zenbait eragile giro txarra etengabe sustatzeko. Eta gu ez gara ibili se-

kula horrelako jokoetan, eta ez gara ibiliko ere.

**Gain-azpi egiteko, lagungarria al da Mendozaren foru aldundia berriro PPrekin ados jartzeari, orain aurrekontuak onartzeko?**

Argi esango dut: Alderdi Sozialistarekin egin genuen akordioaren ondoren aurkeztu zen Eider Mendoza ahalduen nagusi izateko hautagai gisa. Eserlekutan, hortaz, EH Bilduren eta Ahal Duguren baturaren pare geunden EAJ eta PSE. Guk ez genuen hitz erdia ere egin PPrekin, are gutxiago negoziatu. Hark bere erabakia hartu zuen, bere kabuz. Baina horrek guztia bere kontakizuna egiteko balio izan dio EH Bilduri. **Baliteke aurrekontuak onartzeko batuketa bera gertatzea orain.**

Alderdi guztiarekin zabalik dago negoziazioa, inorekin ez baitugu konfiantza eksklusibotasun formula bat aplikatzeko, aurrekoak ikusita. 61,4 milioiko kontraproposamena egin diegu. PPK berehala esan zuen babesa emango zuela; eta, handik bost minutura, EH Bilduk esan zuen: 'Ba, orduan gu ez'. Negoziatioaren mozorroarekin aritu da PP azaldu den arte. Hasierako kontakizuna elikatze-ko nahi dute hori.

**Egokia al da ganberako talde indartsuena oposizioko beste bi talde txikiren zaku barean sartzea, haren babesa lortu nahi bada?**

EH Bilduk esaten du Gipuzkoan gauzak asko aldatu behar direla... Nafarroan, ondo egiten ditu Txibitek! Hamabost-hamazazpi milioiren aldaketengatik ematen diote babesa PSNri. Hemen, hirurei eskaini genien proiektua aurkeztu aurretik ekarpenak egiteko. Ahal Dugu-k eta PPK egin zituzten; EH Bilduk, ez. Zergatik ez dute jokutzen hemen Nafarroan bezala? Nafarroan eta Madrilen dena da 'bai, bai, bai', eta, hemen, berriz, ezezko borobila da nagusi azken hamar urteetan. Hala ere, aldundiak negoziatzen jarraituko du hala nahi duten guztiarekin. ●

**BILBO**  
EUSKARAREN  
HIRIBURUA  
1876-2024

**ERAKUSKETA IBILTARIA**



**BILBOKO UDALTEGIETAN**

ABENDUA | 15-30 | CASTAÑOS

URTARRILA | 3-16 | ABANDO

URTARRILA | 20-30 | OTXARKOAGA

OTSAILA | 3-14 | BASURTO

Labayru



**Bilbao**

